

**BORROKAREN ATARIAN.** EEBBek aliatuengandik zein laguntza mota jaso nahi duten azaldu zuten atzo NATOren Ipar Atlantikoko Kontseiluan. Errusiak eta Europako Batasunak segurtasun arloko aholku organu iraunkor bat osatzea adostu zuten.

# Afganistango oposizioak bat egingo du Washingtonen kanpaina militararekin

Iparaldeko Aliantza EEBBetako ordezkariekin bildu da «erasoa koordinatzeko», eta 10.000 bat borrokalari taliban beraiekin bat egiteko prest agertu direla esan dute

Erredakzioa | DONOSTIA

EEBBak Afganistango agintaritzaren eta bere «gonbidatu» Osama Bin Laden ekin-tzaile islamistaren —New York eta Washingtonen atentatuen erantzule izatea egotzi diote— aurka prestatzen ari diren operazio militarrean parte hartuko duela esan zuten atzo talibanen aurkako Iparaldeko Aliantzak. Afganistango oposizioak aditza eman zuenez, «ekintza militar koordinatua» martxan jarri du Washingtonen.

Azkenaldian oposizioa operazio horren inguruan eztabaidatzeko EEBBetako ordezkariekin Afganistandik kanpo «egunero» bildu dela adierazi zuten atzo Abdula Abdula Iparaldeko Aliantzako eledunak. «Elkarlanerako bideez mintzatu

gara» esan zuten hark. Era berean, EEBBen eraso «laster» gertatuko zela jakinarazi zuten Abdulak. Afganistango presidente ohi Burhanuddin Rabbanik atzo baieztatu egin zuten EEBBetako komandoak talibanen kontrolpeko eremuetan daudela.

Horrez gain, 10.000 borrokalari taliban «edozein unetan» oposizioarekin bat egiteko prest agertu direla jakinarazi zuten Abdulak. Afganistango oposizioak 15.000 borrokalari inguru ditu, eta talibanek 40.000 eta 60.000 artean.

Era berean, Iparaldeko Aliantzari agindutako armak eta munizioak bidali zizkiola jakinarazi zuten Errusiak. Iranek eta Moskuk babes militarra emateko konpromisoa hartu dute, Afganistango oposizioaren arabera. Horrez gain, talibanen esku

dauden guneetatik ihes eginda-koentzako giza laguntza eskatu zuten Abdulak atzo.

Bien bitartean, Kabulgo erregimenak negoziatzeko dei egin zion berriro Washingtoni atzo. Era berean, Mohammed Zahir Xah Afganistango errege ohia-reakin eta oposizioarekin bat egiten dutenak hiltzera zigortuko dituztela adierazi zuten talibanek. Iparaldeko Aliantzako ordezkariak atzo esan zutenenez, Afganistango hainbat taldek Gobernu berria eratuko duen Batasun Nazionalako Kontseilua osatuko dute bi aste barru.

## EEBBen eskaerak NATOri

Irailaren 11ko atentatuei erantzuteko herrialde aliatuen eskutik zein laguntza mota jaso nahi duten zehaztu zuten EEBBek atzo NATOren Ipar Atlantikoko

Kontseiluaren aurrean. Washingtonen eskarien artean «neurri operatiboak» zeudela adierazi zuten Yves Brodeur NATOko eledunak.

Herrialde bakoitzeko enbaxadoreek beren Gobernuari eskaera sortaren berri eman ostean erantzun zuten die NATOk EEBBei. Aliantzak indarrean jarri zuten atzo bere sortze agiriko 5. artikulua —aliatu bati atzerritik eraso egiten badiote besteek erantzuten lagundu beharko diotela biltzen du—, Bin Ladenek atentatuetan izan zuten arduraren inguruan EEBBek aurkeztu frogak ontzat jo ostean.

Bestalde, «terrorismoaren» aurkako elkarlana sendotzea eta segurtasun arloko aholku organu iraunkor bat eratzea adostu zuten atzo Errusiak eta Europako Batasunak.



SAEED KHAN / EPA

Talibanen aldeko Pakistango alderdi erlijioso nagusiko buru Maulana Fazlur Rehman.



JEROME DELAY / AP

**PAKISTANGO TALIBANEN ALDEKO TALDEAK.** Afganistango agintaldi talibanaren aldeko Islamabadeko Jamiat Ulama-e-Islam alderdi erlijiosoko jarraitzaileak, atzo, Kettan egindako manifestazio batean. 10.000 borrokalari taliban oposizioa Iparaldeko Aliantzarekin bat egiteko prest agertu direla esan dute Kabulgo erregimenaren aurkariak.